

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA**212/2026 Foru Agindua, abuztuaren 4koa. Onartzea Arabako Lurralde Historikoko eskola-adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren programa 2026-2027 ikasturterako**

Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak eta Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak osatzen dute foru aldundietako organo eskudunek beren lurralde historikoetako eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren urteko programak egiteko lege esparrua.

Arabako Foru Aldundiaren eremuan, kirol arloko eskumena duen sailak bere gain hartzen du programa horiek egitea, onestea eta gauzatzea, Arabako Lurralde Historikoko Eskola Kirolari buruzko urriaren 28ko 21/2020 Foru Arauaren 5.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta sail horretako diputatu titularrari dagokio programa garatzeko behar diren xedapenak emateko eskumena, azken xedapenetako lehenengoan emandako arau gaikuntzaren arabera.

Transkribatutako aginduak ikusita, Kultura eta Kirol Sailaren uztailaren 14ko 185/2025 Foru Aginduaren bidez, Arabako Lurralde Historikoko eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programen araudia onetsi zen. Foru agindu horren artikuluetan jasotzen da urtero onetsi behar dela urteko programa bakoitza.

Aurreko guztiaren arabera, beharrezkoa da, une honetan, Arabako Lurralde Historikoko eskola adinekoen jarduera fisikoaren eta kirolaren programa onestea 2026-2027 ikasturterako.

Horregatik, nahitaezko txostenak aztertu dira, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT**Lehenengoa. Kategoriak, adinak eta lurralde-eremuak**

2026-2027 ikasturterako, eskola adinekoen jarduera fisikoko eta kiroleko programen kategoriak, jaiotze urteak eta dagokien lurralde eremua, honako hauek izango dira:

KATEGORIA	JAIOZE URTEA	ERREFERENTZIAKO IKAS MAILA	LURRALDE EREMUA
0-6 urte	≤ 2021	Haur Hezkuntza	Tokikoa
Aurrebenjaminak (1. urtea)	2020	Lehen Hezkuntzako 1. maila	Tokikoa
Aurrebenjaminak (2. urtea)	2019	Lehen Hezkuntzako 2. maila	Tokikoa
Benjaminak (1. urtea)	2018	Lehen Hezkuntzako 3. maila	Lurraldea
Benjaminak (2. urtea)	2017	Lehen Hezkuntzako 4. maila	Lurraldea
Kimuak (1. urtea)	2016	Lehen Hezkuntzako 5. maila	Lurraldea/Erkidegoa
Kimuak (2. urtea)	2015	Lehen Hezkuntzako 6. maila	Lurraldea/Erkidegoa
Haurrak (1. urtea)	2014	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila	Lurraldea/Erkidegoa/Estatua
Haurrak (2. urtea)	2013	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila	Lurraldea/Erkidegoa/Estatua
Kadeteak (1. urtea)	2012	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila	Lurraldea/Erkidegoa/Estatua
Kadeteak (2. urtea)	2011	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila	Lurraldea/Erkidegoa/Estatua

Bigarrenena. Eskola-adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren programan sartutako jarduerak

Foru agindu honen I. eranskinean jasotzen dira eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren 2026-2027 programan jasotako jarduerak, bakoitzaren kategoria eta ibilbideekin, taldeak inskribatzeko epemugarekin eta, hala badagokio, lehiaketa-jardueretako talde bakoitzeko gutxieneko eta gehieneko kirolari kopuruarekin.

Hirugarrena. Programaren iraupena

1. Foru agindu honetan aipatzen den eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren programa 2026ko irailaren 1etik 2027ko abuztuaren 31ra bitartean garatuko da, biak barne.

Laugarrena. Egun baliogabeak

1. Honako hauek ez dira jarduerak eta lehiaketak antolatzeko egun balioudunak izango:

- 2026ko urriaren 10, 11 eta 12a.
- 2026ko azaroaren 1a.
- 2026ko abenduaren 5etik 8ra.
- 2026ko abenduaren 24tik 2027ko urtarrilaren 6ra (Gabonetako oporrak).
- 2027ko martxoaren 25etik apirilaren 4ra (Aste Santuko oporrak).
- 2027ko apirilaren 28a.
- 2027ko maiatzaren 1a eta 2a.

2. Egun baliogabe horietan, ordea, eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren programan laguntzen duten entitateek edo federaziok jarduera irekiak antolatu ahal izango dituzte, baldin eta Arabako Foru Aldundiak onetsi baditu edo haren baimena badute.

3. Haur eta kadete kategorietako errendimenduaren hastapeneko ibilbideetan parte hartzen duten entitateek, hala uste badute, irakaskuntza jarduerak (entrenamenduak) egin ahal izango dituzte jai egunak ez diren Gabonetako eta Aste Santuko opor egunetan.

4. Halaber, talentuak edo etorkizun handiko kirolariak identifikatzeko ibilbideko jarduerak oporretan egin ahal izango dira, eta lehiaketak jaiegunetan ere bai.

5. Egoera berezietan, jarduerak eta lehiaketak egun baliogabeetan egiteko baimena eman ahal izango da.

Bosgarrena. Jardueren iraupena

1. Irakaskuntza, jolas, detekzio eta kirol eta kultura jarduerak 2026ko irailaren 7tik 2027ko ekainaren 18ra bitartean egin ahal izango dira, biak barne.

2. Parte hartzeko ibilbideko lehiaketa jardueren datak kategoria hauen arabera ezartzen dira:

a) Benjaminen kategoria: jarduerak egiteko lehenengo egun baliouduna 2026ko urriaren 17a izango da, eta azkena, 2027ko maiatzaren 30a.

b) Kimuen kategoria: jarduerak egiteko lehenengo egun baliouduna 2026ko urriaren 3a izango da, eta azkena, 2027ko maiatzaren 30a.

c) Haurren kategoria: jarduerak egiteko lehenengo egun baliouduna 2026ko urriaren 3a izango da, eta azkena, 2027ko maiatzaren 30a. Euskadiko Eskolarteko Jokoetan Arabako ordezkaria erabaki behar den lehiaketetarako, 2027ko maiatzaren 23an amaitu beharko da lehiaketa, dagokion kirol modalitate/diziplinaren araudiak beste data bat zehazten duenean izan ezik.

d) Kadeteen kategoria: jarduerak egiteko lehenengo egun baliouduna 2026ko urriaren 3a izango da, eta azkena, 2027ko maiatzaren 30a.

3. Errendimenduaren hastapeneko ibilbideko lehiaketa jarduerak egiteko lehen egun balioduna 2026ko irailaren 26a izango da, eta azkena 2027ko maiatzaren 30a. Euskadiko Eskolarteko Jokoetan Arabako ordezkaria erabaki behar den lehiaketetarako, 2027ko maiatzaren 23an amaitu beharko da lehiaketa, dagokion kirol modalitate/diziplinaren araudiak beste data bat zehazten duenean izan ezik.

4. Udako egutegi federatua duten kirol modalitateen kategoria guztiek lehiaketa jarduerak egin ahal izango dituzte 2026ko irailaren 12tik 2027ko ekainaren 13ra bitartean.

5. Udalerriek eta beste toki erakunde batzuek antolatzen dituzten topaketekin edo kirol anitzeko lehiaketekin ez kointziditzeko, erakunde laguntzaileek ezin izango dituzte B edo C kirol jarduera anitzetan inskribatutako kirolari edo taldeei soilik zuzendutako lehiaketak antolatu, ezta kirol bakarreko topaketarik ere, data eta kategoria hauetan:

a) Aurrebenjaminen kategoria: 2026ko azaroaren 7a, 2026ko azaroaren 21a, 2026ko abenduaren 12a, 2027ko urtarrilaren 23a, 2027ko otsailaren 6a, 2027ko otsailaren 20a, 2027ko martxoaren 6a, 2027ko martxoaren 20a, 2027ko apirilaren 17a eta 2027ko maiatzaren 15a.

b) Benjaminen kategoria: 2026ko azaroaren 14a, 2026ko azaroaren 28a, 2027ko urtarrilaren 16a, 2027ko urtarrilaren 30a, 2027ko otsailaren 13a, 2027ko otsailaren 27a, 2027ko martxoaren 13a, 2027ko apirilaren 10a, 2027ko maiatzaren 8a eta 2027ko maiatzaren 15a.

6. Hala ere, egoera berezietan, xedapen honetan ezarritako datak aldatzeko baimena eman ahal izango da.

7. Nolanahi ere, beste bi lurralde historikoetako eskola programetan parte hartzeko baimena duten entitateek beren jarduerak garatu ahal izango dituzte programa horiek ezartzen dituzten datetan, lehenengo apartatuan ezarritako datak gainditzen badituzte ere.

Seigarrena. Izaera kolektiboko lehiaketen ordutegia

1. Lehiaketa eguna larunbata izango da, eta partida hasteko azken ordua 9:00etatik 13:30era bitartekoa izango da.

Aurrekoa gorabehera, modalitate bakoitzeko araudi espezifikoko goragoko kategorietarako beste ordutegi batzuk gaitu ahal izango ditu, instalazio nahikorik ez dagoelako edo salbuespe-nezko beste inguruabar batzuk daudelako.

2. Horrez gain, taldeetakoren batek bidaia egin behar badu partidetan, partidaren ordutegia 10:30etik 12:30era bitartekoa izango da. Salbuespen gisa, eta soilik kirol instalazio batean ordu tarte hori osorik betetzen bada talde desplazatuek dituzten partidekin, partidak 9:30 - 13:00 bitartean jokatu ahal izango dira, benjamin kategorian izan ezik. Ez da beharko federazioaren eta Arabako Foru Aldundiaren baimenik salbuespena aplikatzeko, baina modalitate bakoitzaren araudi espezifikoko zehaztu beharko ditu modalitate hori behar ez bezala aplikatzearen ondorioak.

Era berean, larunbat arratsaldeetan lehiaketak egitea ahalbidetzen duten araudiak dituzten kategorietan, herrien arteko joan-etorriak dituzten partidak 16:30etik 18:00etara egingo dira.

3. Foru Agindu honetan ezarritakoak ez diren asteko beste egun edo ordutegi batzuk baimendu ahal izango dira, entitate laguntzaileak eskaera justifikatua egin ondoren. Halaber, ordutegiak edo asteko egunak aldatu ahal izango dira dagokion administrazio baimenik gabe, baldin eta entitate parte hartzaileen artean adostasuna badago eta entitate laguntzailearen oniritzia badago.

Zazpigarrena. Banakako modalitateetako lehiaketen ordutegia

1. Banakako lehiaketak larunbat goizetan eta/edo arratsaldeetan egin ahal izango dira, baita igande goizetan ere.

2. Igande arratsaldeetan edo asteko beste egun batzuetan jarduerak egitea baimendu ahal izango da, entitate laguntzaileak eskaera justifikatua egin ondoren.

Zortzigarrena. Izen emateak

Eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren programako jardueretan izena emateko, bai entitateenak, bai taldeenak edo parte hartzaileenak, foru agindu honen II. eranskinean ezarritako jarraibideen arabera egingo dira.

Bederatzigarrena. Irabazteko xederik gabeko entitateen joan-etorriak

1. Entitate laguntzaileek edo udalerriek antolatutako kirol bakarreko edo kirol anitzeko to-paketak eta lehiaketak garatzeko kirol arloan eskumena duen sailak emandako garraioa eduki nahi duten entitateek bidaia eskaera egin beharko dute eskola kiroleko aplikazio informatikoaren bidez, lehiaketa egunaren edo jardueraren aurreko asteazkeneko 08:00ak baino lehen. Eskaera bat egingo da talde interesdun bakoitzeko.

2. Programan izena emandako taldeen edo taldeen entrenamenduak egiteko, kirol arloan eskumena duen sailak emandako garraioa eduki nahi duten entitateek programaren edozein unetan egin beharko dute bidaia eskaera, egoitza elektronikoaren bidez eskura daitekeen iza-pide espezifikokoaren bidez. Entitate eskaera bakarra egingo da ikasturte osorako.

Hamargarrena. Saio kopurua

Uztailaren 14ko 185/2025 Foru Aginduaren 21.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, handitu egingo da asteko saioen gehieneko kopurua foru agindu honen III. eranskineko 1. apartatuan jasotako kirol modalitate edo diziplinetarako, kirol errendimendu handiena adin goiztiarragoe-tan lortzen baita.

Hamaikagarrena. Lizentzia federatuak izapidetzea

1. 2026-2027 ikasturtean, eskola adineko kirolarientzako lizentzia federatuak izapidetzeko baimena emango da, aldezturik eskatuta, foru agindu honen III. eranskinaren 2. apartatuan ezarritako modalitate eta kategorietan.

2. Halaber, eskola lizentzia eta lizentzia federatua aldi berean egiteko baimena ematen da, foru agindu honen III. eranskineko 3. apartatuan ezarritako modalitate eta kategorietan.

3. Arlo honetan beste baimen batzuk ezarri ahal izango dira, uztailaren 14ko 185/2025 Foru Aginduaren VIII. kapituluko laugarren atalean ezarritakoaren arabera.

Hamabigarrena. Baldintzak onartzea

Eskola adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren programan izena ematen duten entitate guztiek nahitaez onartu beharko dituzte foru agindu honetan ezarritako baldintzak, bai eta beste hauetan ezarritakoak ere: Arabako Lurralde Historikoko eskola adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programak arautzen dituen araudiari buruzko uztailaren 14ko 185/2025 Foru Agindua; Eskolako Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua; Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legea; eta aplikatzekoa izan daitekeen beste edozein araudi. Halaber, onartu beharko dute kirol arloko eskumena duen sailak izendatutako pertsonak lekuan bertan egotea, onetsitako proiektua edo programa ikuskatzeko, jarraitzeko eta egiaztatzeko, halaxe jasotzen baita Arabako Lurralde Historikoan Eskola Kirola Ikuskatzeko araudiaren azaroaren 18ko 320/2021 Foru Aginduan.

Hamahirugarrena. Indarrean jartzea

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 4a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria
JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

215

PARTE HARTZEKO IBILBIDEA JOLAS ETA AISIA JARDUERAK	ITINERARIO DE PARTICIPACIÓN ACTIVIDADES DE CARÁCTER LÚDICO-RECREATIVO
---	--

JARDUERA ACTIVIDAD	KATEGORIAK CATEGORÍAS	IZEN EMATEA Azken eguna INSCRIPCIÓN Fecha límite
GORPUTZ ETA KIROL ARLOKO JARDUERAK ACTIVIDADES FÍSICO-DEPORTIVAS	Benjaminurrekoa-Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea Prebenjamín-Benjamín-Alevín-Infantil-Cadete	2026-11-29
MUSIKA-ERRITMO JARDUERAK ACTIVIDADES RÍTMICO-MUSICALES	Benjaminurrekoa-Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea Prebenjamín-Benjamín-Alevín-Infantil-Cadete	2026-11-29
ARTZIKIROL	Benjaminurrekoa-Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea Prebenjamín-Benjamín-Alevín-Infantil-Cadete	2026-11-29

PARTE HARTZEKO IBILBIDEA MULTIKIROLEKO TOPAKETAK	ITINERARIO DE PARTICIPACIÓN TOPAKETAK MULTIDEPORTIVAS
---	--

UDAL/KUADRILLA ANTOLATZAILEA MUNICIPIO/CUADRILLA ORGANIZADORA	KATEGORIAK CATEGORÍAS	IZEN EMATEA Azken eguna INSCRIPCIÓN Fecha límite
GASTEIZKO UDALA AYUNTAMIENTO DE VITORIA	Benjaminurrekoa - Benjamina - Kimua - Haurra - Kadetea Prebenjamín - Benjamín - Alevín - Infantil - Cadete	ZEHAZTEKO A DETERMINAR

PARTE HARTZEKO IBILBIDEA KIROL BAKARREKO TOPAKETAK	ITINERARIO DE PARTICIPACIÓN TOPAKETAK MONODEPORTIVAS
---	---

KIROL MODALITATEA MODALIDAD DEPORTIVA	KATEGORIAK CATEGORÍAS	IZEN EMATEA Azken eguna INSCRIPCIÓN Fecha límite
XAKEA AJEDREZ	Benjaminurrekoak Benjaminak Kimuak Haurrak Kadeteak	Federazio bakoitzak ezartzen duena
ATLETISMOA		
ATLETISMO		
SASKIBALOIA		
BALONCESTO		
TXIRRINDULARITZA		
CICLISMO		
KIROL EGOKITUA DEPORTE ADAPTADO		
FUTBOLA		
FÚTBOL		
GIMNASTIKA ERRITMIKOA GIMNASIA RÍTMICA	Prebenjamín Benjamín Alevín Infantil Cadete	La establecida por cada federación deportiva
JUDO		
JUDO		
MENDIA		
MONTAÑA		
PADELA		
PÁDEL		
IRRIKAKETA		
PATINAJE		
EUSKAL PILOTA		
PELOTA VASCA		
SQUASHA		
SQUASH		

KIROL TALENTUAK ETA PROMESAK HAUTEMATEKO IBILBIDEA
ITINERARIO DE IDENTIFICACIÓN DE TALENTOS Y PROMESAS
HAUTEMATE JARDUERAK
ACTIVIDADES DE DETECCIÓN

KIROL MODALITATEA MODALIDAD DEPORTIVA	KATEGORIAK CATEGORÍAS
SASKIBALOIA BALONCESTO	Kimua-Haurra Alevin-Infantil
EUSKAL PILOTA PELOTA VASCA	Kimua-Haurra Alevin-Infantil

TEKNIFIKAZIO JARDUERAK
ACTIVIDADES DE TECNIFICACIÓN

KIROL MODALITATEA MODALIDAD DEPORTIVA	KATEGORIAK CATEGORÍAS
XAKEA AJEDREZ	2. urteko kimua-Haurra Alevin 2º año-Infantil
BADMINTONA BADMINTON	2. urteko Kimua-Haurra-Kadetea Alevin 2º año-Infantil-Cadete
SASKIBALOIA BALONCESTO	2. urteko Kimua-Haurra-1. urteko Kadetea Alevin 2º año-Infantil-Cadete 1º año
ESKUBALOIA BALONMANO	2. urteko Kimua-Haurra-Kadetea Alevin 2º año-Infantil-Cadete
TXIRRINDULARITZA CICLISMO	2. urteko kimua-Haurra Alevin 2º año-Infantil
ARETO FUTBOLA FÚTBOL SALA	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevin 2º año-Infantil-Cadete
HALTEROFILIA HALTEROFILIA	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevin 2º año-Infantil-Cadete
KARATEA KARATE	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevin 2º año-Infantil-Cadete
IGERIKETA NATACIÓN	2. urteko Kimua Alevin 2º año
EUSKAL PILOTA PELOTA VASCA	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevin 2º año-Infantil-Cadete
SQUASHA SQUASH	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevin 2º año-Infantil-Cadete
MAHAI-TENISA TENIS DE MESA	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevin 2º año-Infantil-Cadete
TAEKWONDOA TAEKWONDO	2. urteko kimua-Haurra Alevin 2º año-Infantil
ARKU TIROA TIRO CON ARCO	2. urteko kimua-Haurra-Kadetea Alevin 2º año-Infantil-Cadete

LEHIAKETA MURRIZTUAK
COMPETICIONES RESTRINGIDAS

KIROL MODALITATEA MODALIDAD DEPORTIVA	KATEGORIAK CATEGORÍAS
ARETO FUTBOLA FÚTBOL SALA	Haurra-Kadetea Infantil-Cadete
SASKIBALOIA BALONCESTO	2. urteko kimua-Haurra Alevin 2º año-Infantil

PARTE HARTZEKO IBILBIDEA
JARDUERA IREKIAK

 ITINERARIO DE PARTICIPACIÓN
ACTIVIDADES ABIERTAS

KIROL MODALITATEA MODALIDAD DEPORTIVA	LEHIAKETA FESTAK FIESTAS COMPETITIVAS	AISIALDI FESTAK FIESTAS RECREATIVAS	HASTAPEN IKASTAROAK CURSOS DE INICIACIÓN
XAKEA		X	X
AJEDREZ		X	
ATLETISMOA		X	
ATLETISMO		X	
BADMINTONA	X	X	X
BADMINTON		X	
SASKIBALOA		X	
BALONCESTO		X	
ESKUBALOA	X	X	X
BALONMANO		X	X
BEISBOLA ETA SOFBOLA		X	X
BÉISBOL Y SOFBOL		X	
BOXEOA			X
BOXEO			X
TXIRRINDULARITZA	X	X	X
CICLISMO		X	X
ESKALADA		X	X
ESCALADA		X	
KIROL EGOKITUA		X	
DEPORTE ADAPTADO		X	
FUTBOLA		X	
FUTBOL		X	
GOLFA	X	X	
GOLF		X	
HALTEROFILIA			X
HERRI KIROLAK		X	X
BELAR HOCKEYA	X	X	X
HOCKEY HIEBIA		X	X
ARETO HOCKEYA	X	X	X
HOCKEY SALA		X	X
IZOTZ HOCKEYA	X	X	X
HOCKEY HIELO		X	X
BORROKA		X	X
LUCHA		X	
JUDO		X	
JUDO		X	
PADELA	X	X	
PADEL		X	
IRRISTAKETA		X	X
PATINAJE		X	
IZOTZ GAINEKO IRRISTAKETA		X	
PATINAJE SOBRE HIELO		X	
EUSKAL PILOTA	X	X	X
PELOTA VASCA		X	X
PIRAGUISMOA			X
PIRAGUISMO			X
ERRUGBIA	X		X
RUGBY			X
IRRISTAKETA - SKATE		X	X
PATINAJE - SKATE		X	X
TIRO OLIMPIKOA		X	X
TIRO OLIMPICO		X	
TRANPOLINA			X
TRAMPOLIN			X
PARKOURRA			X
PARKOUR			X
ARKU TIROA	X	X	X
TIRO CON ARCO		X	X
URAZPIKO JARDUERAK			X
ACTIVIDADES SUBACUÁTICAS			X



II. ERANSKINA:

Izen-emateak formalizatzeko jarraibideak

1.- Izen-emateak.

a) Eskola-kiroleko programako jardueretan izena emateko, parte hartzen duten erakundeek, taldeek edo pertsonak, eskola-kiroleko aplikazio informatikoa erabiliko dute (aurrerantzean, CUDE aplikazio informatikoa): <https://www.araba.eus/DeporteEscolar/Account/Login>.

b) Erakundeak, taldeak eta kirolariak 2026ko abuztuaren 24tik aurrera inskribatu ahal izango dira 202-2027 ikasturteko eskola programan.

2.- Erakundeen izen-emateak.

a) Erakundea izena ematea eta baliozkotzea taldeak eta kideak izena ematearen aurreko urratsa da.

b) Izena eman ahal izateko, erakundea CUDE aplikazio informatikoan sartuko da, eskatutako datuak beteko ditu eta alta-prozesuan eskatzen den dokumentazioa erantsiko du.

c) Entitatearen izena emateko orria aurkezteko azken eguna ezingo da izan, inola ere, parte hartu nahi den kirol modalitatean edo haietan taldeak izena emateko azken eguna baino geroagokoa.

d) Erakundearen izen-ematea kirol-arloko zerbitzu eskudunak baliozkotu beharko du. Baliozkotu ondoren, erakundea aplikazioan sartu ahal izango da, eta taldeak eta kideak inskribatu ahal izango ditu.

e) Entitateari alta emateko bi modalitate aukeratu dira:

1.- Aldez aurretik inskribatutako erakundearen alta: aurreko ikasturteetako programaren batean inskribatuta egon den erakundea. Bere erabiltzailearen (IFZ) eta pasahitzaren bidez sartu behar da, eta izena emateko prozesuaren urratsak jarraitu. Erakundearen fitxa erantsiko da, eta, behar izanez gero, banku-kontua eguneratuko da.

2.- Entitate berriaren alta: erakunde sortu berria edo eskola-kirolaren aplikazioan inoiz inskribatuta egon ez dena. "Entitate berria" fitxaren bidez sartu behar da, eta izena emateko prozesuaren urratsak jarraitu. IFZ, estatutuak eta erakundearen fitxa erantsiko dira.

Arabako Foru Aldundiaren hirugarrenen datu-basean agertzen ez bada, horretarako gaitutako izapide elektronikoaren bidez egingo da alta: <https://egoitza.araba.eus/es/-/alta-modificacion-terceros-diputacion-foral-de-alava>.

3.- Taldeen inskripzioak.

a) Erakundearen inskripzioa baliozkotu ondoren, kirol-taldeek edo -taldeek izena eman ahal izango dute CUDE aplikazio informatikoaren bidez, horretarako eskatzen diren datuak betez.

b) Taldeen kategoria hautatuko da. CUDE aplikazio informatikoak, lehenetsita, kirol-modalitate edo -diziplina bakoitzerako gaitutako kategoriak izango ditu. Partaidetza-lehiaketetako banakako modalitate edo diziplinen kasuan, eta hastapen-jardueretako modalitate edo diziplina guztien kasuan, kategoria "anitz" baino ez da gaituko.



c) Taldeak maskulinoak, femeninoak edo mistoak diren hautatuko da.

d) Partaidetza-ibilbideko talde-kirolen lehiaketei dagokienez, maskulinoztat joko da taldekideen artean, gehienez ere, emakumezko kirolari bat duen taldea. Era berean, emakumezkoen taldeetat hartuko da taldeko kideen artean gehienez ere gizonezko kirolari bat duena. Horrenbestez, talde mistotzat hartuko dira sexu edo genero sentitu desberdineko bi kirolari gutxienez dituzten talde guztiak.

e) Talde bakoitza osatzen duten pertsonak edo kideak hautatuko dira, CUDE aplikazio informatikoaren datu-basean inskribatuta dauden guztien artean.

f) Lehiaketa-jardueretan, hala badagokio, foru agindu honen I. eranskinean ezarritako gutxieneko eta gehieneko kirolariak errespetatu beharko dira, uztailearen 14ko 185/2025 Foru Aginduaren 45.3 artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

g) Uztailearen 14ko 185/2025 Foru Aginduaren 24. artikuluan jasotako A, B eta C kirol jarduera anitzeko jardueretan taldeak inskribatzen dituzten entitateek proiektu bat aurkeztu beharko dute taldearen inskripzioarekin batera, aipatutako foru aginduan onartutako I. eranskinarekin bat etorritik.

h) Taldeak inskribatzeko eta, beraz, programan parte hartzeko azken eguna foru agindu honen I. eranskinean kirol modalitate edo diziplina eta kategoria bakoitzerako eta jarduera mota bakoitzerako ezarritakoa izango da.

4.- Kide berriak inskribatzea eta datuak eguneratzea.

a) Erakundearen inskripzioa baliozkotu ondoren, erakundeko kideek izena eman ahal izango dute CUDE aplikazio informatikoaren bidez, horretarako eskatzen diren datuak betez.

b) Eskola-adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren programan izena emateko, erakundeko talde batean sartuko dira, eta kirol-arloko zerbitzu eskudunak baliozkotuko ditu.

c) Erakundeko kideetat hartzen dira eta, beraz, honako pertsona hauek inskribatu behar dira: kirolariak, entrenatzaileak edo begiraleak, arbitroak edo epaileak, taldeko ordezkariak, familiako ordezkariak, erakundeko koordinatzaileak, erakundearen babeserako ordezkariak eta erakundearen legezko ordezkariak.

d) Eskola-adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan lehen aldiz parte hartzen duten kideen inskripzioak kidearen alde aurreko alta behar du CUDE aplikazio informatikoan.

Horretarako, kide bakoitzaren funtsezko identifikazio-datuak beteko dira, eta honako dokumentazio hau erantsiko da:

1.- 14 urte edo gehiagoko pertsonen kasuan: nortasun agiri ofizial bat (Nortasun Agiri Nazionala (NAN), Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia (AIZ), pasaporte edo bizileku-txartela edo agintaritza eskudun batek emandako baliozko beste agiri bat).

2.- 14 urtetik beherakoen kasuan: Nortasun agiri ofizial bat, halakorik izanez gero (Nortasun Agiri Nazionala (NAN), Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia (AIZ), pasaporte edo Egoitza Txartela edo agintaritza eskudun batek emandako beste agiri baliokidea bat).



Aurreko horietakoren bat eduki ezean, jaiotza-ziurtagiria, familia-liburua, errolda-ziurtagiria edo nortasuna egiaztatzen duen beste agiri ofizial bat, legezko tutoretza duen pertsonaren identifikazio-zenbakiaz gain (NAN, AIZ edo pasaporte).

3.- Lehiaketa jardueretan izena emandako kideen kasuan: duela gutxiko argazkia.

4.- Desgaitasunen bat edo premia bereziren bat duten kirolarien kasuan, baldin eta laguntza-pertsona baten laguntza behar badute: desgaitasunaren ziurtagiri ofiziala edo Berritzegunearen ziurtagiria (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila) edo hezkuntza-administrazio eskudunaren ziurtagiria, hezkuntza-eremuan laguntzeko langileak behar direla ziurtatzen duena.

5.- Entrenatzaile, monitore edo koordinatzaileen kasuan: dagokion titulazioa, hala badagokio.

e) Aurreko ikasturteetako programetan parte hartu duten kideek CUDE aplikazio informatikoak horretarako adierazitako aukera hautatuko dute, inolako dokumentaziorik erantsi beharrik gabe, honako egoera hauetan izan ezik:

1.- Aurreko bi ikasturteetan eguneratu ez bada: duela gutxiko argazkia.

2.- 14 urte bete dituzten baina aldez aurretik aurkeztu ez duten kirolariak: NAN, AIZ edo pasaporte.

3.- CUDE aplikazio informatikoan erregistratutakoa baino kategoria handiagoko titulazioa lortu dutela egiaztatu nahi duten entrenatzaileak, monitoreak edo koordinatzaileak: titulazioa.

f) Hamazazpi urtetik gorako kirolarien lehiaketa jardueretan izena ematea eta parte hartzea uztailearen 14ko 185/2025 Foru Aginduaren 49. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

g) Eskola-kirolariak beren adinagatik dagokien kategoria baino goragoko edo beheagoko kategoria batean inskribatzea eta parte hartzea uztailearen 14ko 185/2025 Foru Aginduaren 48. eta 49. artikuluetan, hurrenez hurren, ezarritakoaren arabera egingo da.

h) Entrenatzaileak, koordinatzaileak eta adingabeekin harremanetan egon ohi diren erakundeko beste pertsona batzuk inskribatzeko, erakundeak egiaztatu beharko du pertsona horiek:

1.- “Kiroleko haurren zaintzan eta babesean sensibilizatzeko” prestakuntza edo antzeko beste prestakuntza bat garatu dute.

2.- Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa dute.

i) Erregistroan aldaketa egin ez duten trans pertsonak inskribatzeko, adingabearen legezko ordezkariak sinatutako idazki bat erantsi behar da, eskola-adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren programaren ondorioetarako izena eta sexua aldatu nahi dutela ziurtatzen duena, bai eta izena eta sentitzen den generoa identifikatu ere.

j) 11.1.b) artikuluan aipatzen diren entitateetako futbol eta saskibalo modalitateetako taldeetan lehen urteko aurrebenjaminak inskribatzeko, ikastetxeak edo dagokion ikasleen guraso elkarteak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horrek egiaztatuko du ikastetxeak ez duela talderik dagokion kirol modalitateko kategorian.



k) 2026-2027 eskola-programan kirolari berriak izena emateko azken eguna 2027ko maiatzaren 31 izango da.

l) Parte-hartzaileek nahi adina jardueratan eman ahal izango dute alta eta baja, lehiaketa jardueretan izan ezik, horietan 2025eko uztailaren 14ko 185/2025 Foru Aginduaren 63. artikuluan ezarritakoa errespetatu beharko baita.

5.- Balidazioak.

Uztailaren 14ko 185/2025 Foru Aginduaren 69.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz, eskola adineko kirolari baten edo kirol programan parte hartzen duen beste pertsona baten inskripzioa baliozkotu dadin, eta, beraz, programako jardueretan eta gainerako onuretan parte hartzeko eskubidea izan dezan, dagokion jarduera hasi baino 7 egun natural lehenago egin beharko da gutxienez, behar bezala justifikatutako aparteko arrazoirik ezean.

**III ERANSKINA****1. Asteko saioen gehieneko kopurua handitzea.**

KIROL MODALITATE EDO DIZIPLINA	KATEGORIAK	JARDUERA MOTA ETA SAIO KOPURUA
IGERIKETA	1. urteko aurrebenjamina	Irakaskuntza jarduerak: 2 saio
IGERIKETA ARTISTIKOA	1. urteko aurrebenjamina	Irakaskuntza jarduerak: 2 saio

2. Lizentzia federatuak izapidetzea

KIROL MODALITATEA	KATEGORIAK
Modalidades o disciplinas individuales	2. urteko kimua, 1. eta 2. urteko haurra
Modalidades o disciplinas de equipo	2. urteko haurra
Modalidades o disciplinas no incluidas en el programa	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea

3. Eskola-lizentziaren eta lizentzia federatuaren aldiberekotasuna

KIROL MODALITATEA	KATEGORIAK	OHARRAK
ATLETISMOA	2. urteko haurra	Espainiako Txapelketarako gutxieneko marka lortzeko
ESKRIMA	2. urteko kimua	Gehienez 3 lehiaketatarako
	Haurra-Kadetea	Gehienez 4 lehiaketatarako
MENDIA	Benjamina-Kimua-Haurra-Kadetea	Arabako Mendizale Federazioak aldeztutako aurretik eskatuta